



**LAZKAOKO
UDALA**

**2025EKO EKAINAREN 30EKO
TOKIKO GOBERNU BATZARRA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hogeita bosteko ekainaren hogeita hamarrean, arratsaldeko bostetan, Lazkaoko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarra bildu da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Kepa Zubiarrain Erauskin Alkatearen lehendakaritzapean. Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Amagoia Naldaiz Mingo, Aitor Altuna Oiarbide, Joxemai Ormazabal Sukia eta Maialen Amundarain Irizar.

Idazkari lanetan Idoia Garmendia Callejak dihardu.

I.- AURREKO AKTA.-

Ez da aurkeztu 2025eko ekainaren 16ko akta, beraz ezin izan da puntu hau landu.

II.- FAKTURAK.-

Ondoren, Udaletxera azkenaldi honetan etorri diren fakturak aztertu dira.

Fakturak aztertu ondoren, 2025eko ekitaldiko aurrekontuari dagokion 53 zenbakidun zerrenda, BERROGEITA HAMAZAZPI MILA BOSTEHUN ETA HOGEITA ZORTZI euro ETA BERROGEITA HAMABOST zentimokoa (57.528,55 €), bere espedientean dagoena, onartzea erabaki da.

III.- BERME ITZULKETA (SASOI ERAIKUNTZAK, S.L., ELOSEGI KALEA 19).-

2019ko urriaren 14an, Alkatetzako Ebazpen bidez, "Elosegi kalea, udaletxearen aurrean, berrurbanizatzeko 1. faseko obraren" kontratua SASOI ERAIKUNTZAK, S.L. enpresari esleitu zitzaion, eta beronek 7.957,18 €-ko behin-betiko bermea aurkeztu zuen abal baten bidez, esleipenaren aurretik.

2025eko maiatzaren 23an SASOI ERAIKUNTZAK, S.L.-k Udalaren erregistro elektronikoaren bitartez, behin betiko berme hau itzultzeko eskaera egin zuen.

Udaleko Arlo Teknikoko Koordinatzaileak burutu duen txostena ikusi da, kontratua behar bezala bete dela esanez eta ez dela erantzukizunik izan bermeari erantzuteko.

2025eko ekainaren 16ko batzordean, Ormazabal zinegotziak (EH Bildu) aipatu zuen zenbait baldosa altxatuta daudela eta galdetu zuen ea horren erantzukizunik ezin ote zaion eskatu orain.

Gai hau Udal teknikariarekin argitu da eta epea pasa ondoren ezin zaiola erantzukizunik eskatu ondorioztatu da.

Beraz, batzorde honek, aho batez, bermea bueltatzea erabaki du.

IV.- GIPUZKOAKO EROSKETA ZENTRALAREN BIDEZ, ELEKTRIZITATE HORNIDURA KONTRATUAREN ESLEIPENA.-

Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Erakunde Antolaketa, Gobernu eta Administrazioari buruzko uztailaren 12ko 6/2005 Foru Arauak, 40.5.b) artikuluan emandako eskumenekin bat etorritik, Gobernantzako foru diputatuak 2025eko maiatzaren 15eko Foru Aginduen bitartez, IBERDROLA CLIENTES SAU, I.F.Z. A95758389, enpresarekin "Foru Kontratazioen Zentralaren bitartez elektrizitate hornidura kontratatzeako esparru akordioa" burutzea ebatzi zuen.

Lazkaoko Udalari dagokio, Foru Kontratazio Zentralak tramitatutako espedienteari atxikia dagoen erakundea den aldetik, eta hornidura interesatzen zaion neurrian, 2011ko otsailaren 22ko 3/2011 Foru Dekretuaren 6. artikuluekin arabera, esparru akordiotik eratorritako kontratua esleitzea, formalizatzea eta gastua baimentzea.

Behin esparru akordioa izenpetu ondoren, Udal teknikariak 2025eko ekainaren 26an emandako txostenaren arabera, aipatu horniketaren beharra dela eta, elektrizitate horniduraren kontratua, Esparru Akordioa burutzea erabaki den enpresa berari esleitzea proposatzen du.

Administrazio honek kontratatzea beharko duen hornidura zenbatetsiz, gutxi gora-behera, urteko 290.000,00 euroko gastua ateratzen da, BEZik gabe.

Hori dela eta, 2017ko azaroaren 8ko 9/2017 Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 221. artikuluari jarraituz, bidezkoa da eratorritako kontratua IBERDROLA CLIENTES SAU, I.F.Z. A95758389, enpresari esleitzea, sinatutako Esparru Akordioan ezarritako baldintzetan.

Ondorioz, Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez, honako akordioak hartu ditu:

LEHENENGO.- Esleitzea IBERDROLA CLIENTES SAU, I.F.Z. A95758389 enpresari, "Foru Kontratazioen Zentralaren bitartez elektrizitate hornidura kontratatzeako esparru akordioan" oinarritutako kontratua, esparru akordioa burutzea erabaki den baldintzetan.

BIGARREN.- Baimentzea eta xedatzea IBERDROLA CLIENTES SAU, I.F.Z. A95758389 enpresaren alde, aurtengo ekitaldiari dagokion 290.000 gehi BEZ euroko gastua, 1 221.01 kontusailaren kargura.

V.- GIPUZKOAKO EROSKETA ZENTRALAREN BITARTEZ, UDAL ERAIKINETAKO IGOGAILUEN MANTENU ZERBITZUAREN KONTRATUARI ATXIKITZEA.-

Gipuzkoako Erosketen Foru Zentralak jakinarazi du, igogailuen mantentze-lanen zerbitzuaren kontratazio espedienteari hasiera ematera doala, esparru akordioaren prozedura bidez.



Kontuan izanda udal honetako Osoko Bilkurak, 2011ko martxoaren 17an egindako bilkuran, Gipuzkoako Foru kontratazioen zentralari atxikitzeko hitzarmena onartu zuela.

Kontuan izanda baita ere udal honek zerbitzu honen kontratazioa behar duela.

Gaia aztertu ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botoekin zera erabaki du:

- 1.- Gipuzkoako Foru Kontratazioen Zentralaren bidez igogailuen mantentze-lanen zerbitzua kontrataatzeko hasi duen esparru akordioaren kontratazio espedienteari atxikipena ematea, 2011ko martxoaren 17ko Udal Osoko Bilkurak onartuta atxikitako hitzarmenean ezarritako eran eta baldintzetan, eta 2011ko otsailaren 22ko 2011/3 Foru Dekretuan ezarritako arauetan.
- 2.- Enpresa esleipendunarekin kontratu eratorria izenpetzeko konpromisoa hartzea, aldundiak esparru akordioa formalizatu ondoren eta hark adierazitako epean, betiere.

VI.- ALKATETZAREN 2025/374 EBAZPENAREN BERRI EMATEA, ZEINAREN BIDEZ, DIRULAGUNTZA BAT EMATEA ONARTZEN DEN.-

Alkatetzaren 2025/374 Dekretuaren berri eman da. Dekretu hori 2025eko ekainaren 24koa da, eta, haren bidez, alkateak erabaki du tokiko gobernu-batzarrari dirulaguntzak emateko esleitutako eskumena bereganatzea, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 legearen 10.1 artikulua arabera.

Dekretu horren bidez, Jon Barandiaran Mujika jaunari Zubierreka auzoan San Joan eguna dela eta egiten diren jarduerak antolatzeako dirulaguntza ematea onartzen da, 675,24 eurokoa.

Tokiko Gobernu Batzarrak dekretu horren edukiaren berri izan du.

VII.- EUSKARA ARLOKO DIRULAGUNTZAK.-

Euskara batzordeak egindako proposamenen aurrean, Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez, honako erabaki hauek hartu ditu:

Gerriko kultur elkarteari.-

2025eko urtariletik ekainera bitartean aurrera eraman duen Mintzalagun jarduera antolatzeagatik, dagokion 5.500 €-ko lehen ordainketa egitea.

Ordainketa partida honetatik egingo da: 2025eko aurrekontuaren 1 481.02.335. 00 partidatik.



VIII.- KULTURA ARLOKO DIRULAGUNTZAK.-

Kultura Batzordeak aurkeztutako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzordeak honako erabaki hauek hartu ditu:

Oin Arin dantza taldeari.-

2025eko ekainaren 8an Lazkaon dantzari txiki eguna antolatzeagatik, 3.835,89 €-ko dirulaguntza ematea.

Ordainketa 1 481.01.334.00 partidatik egingo da.

IX.- HEZKUNTZA ARLOKO DIRULAGUNTZAK.-

Hezkuntza batzordeburuak aurkeztutako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzordeak honako erabaki hau hartu du:

San Benito Ikastolari.-

Udalaren eta San Benito Ikastolaren artean 2025ean izenpetutako hitzarmenaren arabera, urteko dirulaguntzaren lehen zatia ematea. Hau da, 17.000 € ematea ikastetxearen mantenu gastuak direla eta.

Ordainketa aurrekontuko 1 481.01.326.00 partidatik egingo da.


X.- EKONOMIA SUSTAPENA ARLOKO DIRULAGUNTZAK.-

Ekonomia Sustapeneko Batzordetik, merkataritza, zerbitzu eta ostalaritza jardueren dirulaguntzak emateko egindako proposamenen aurrean, Tokiko Gobernu batzarrak, honako erabaki hauek hartu ditu:

Merkatariei erosketa bonoengatik.-

Lazkaoko merkataritzaren sustapenerako Lazkaoko Udalak 2025eko maiatzean martxan jarritako erosketa bonoen kanpainaren barnean, parte hartu duten hainbat merkatarik beraien saltokitan jasotako bonoak ekarri dituzte Udalera eta ondorioz dagokien merkatariei hirugarren ordainketa egitea:

MERKATARIA	GUZTIRA	DIRULAGUNTZA
LIERNI FDEZ. CARRERO (NARE)	240,00 €	60,00
LIERNI FDEZ. CARRERO (NARE)	255,00 €	63,75
OREKA OKINDEGIA SL	145,00 €	36,25
OREKA OKINDEGIA SL	75,00 €	18,75
AMAIA SORAZU (EKILORE)	510,00 €	127,50
XABIER BARANDIARAN (OSATU)	1.430,00 €	357,50



LAZKAOKO UDALA

XABIER BARANDIARAN (OSATU)	10,00 €	2,50
JAVIER GUTIERREZ HERNANDEZ (UNARO)	235,00 €	58,75
LEIRE CONDE ABELLA (PinKIDS Akademia)	50,00 €	12,50
ANGEL CIEREZ (ZERIK ILEAPAINDEGIA)	50,00 €	12,50
JAUREGI ELEKTRIZITATEA	2.510,00 €	627,50
IDOIA MATXINANDIARENA (A.BELEN)	1.420,00 €	355,00
AINHOA OLARAN (FISIO ZENTRUA)	375,00 €	93,75
GERRIKO SL	245,00 €	61,25
ARANTXA FERNANDEZ (GAZI GOZO)	700,00 €	175,00
MIKEL LUZURIAGA (MIKEL OPTIKA)	2.150,00 €	537,50
RAQUEL GARCIA MENDOZA (PRANAQI)	60,00 €	15,00
NEKANE GARMENDIA...CB (GARAIZ)	4.680,00 €	1.170,00
MILA MTNEZ. (DIGITAL IZAR)	25,00 €	6,25
FONTANERIA JESUS GOMEZ SL	190,00 €	47,50
EIDER LUNA (STYLO ILEAPAINDEGIA)	555,00 €	138,75
AINHOA GURRUTXAGA (ILEAP.)	1.740,00 €	435,00
AMAIA CARRO Y OTROS CB (HIRUTXOKO)	50,00 €	12,50
ANA CRISTINA OLANO (ESTETIKA ZEN)	1.480,00 €	370,00
AMAIA SUKIA MAIZ (AMETS BAT)	1.050,00 €	262,50
GARAZI ZUFIRIA (ARRIARAN MERTZ.)	835,00 €	208,75
MIGUEL MARI ARAKAMA (HARATEGIA)	1.270,00 €	317,50
URTEAGA PENTXUAK SL	450,00 €	112,50
GOITIA AUTOESKOLA SL	575,00 €	143,75
KEMEN SL	50,00 €	12,50
MARIANA OSTERTAG (MAMUFO)	35,00 €	8,75
JOANA PLASENCIA ZUNZUNEGI (XANU)	2.155,00 €	538,75
AGURTZANE DE MIGUEL.. (KOKKOR)	25,00 €	6,25
ERROTAUNDI SL	140,00 €	35,00
RAKEL OIARBIDE (EIRE ILEAP.)	230,00 €	57,50
PEDRO PEREIRO FARMAZIA	1.630,00 €	407,50
DAMASO LOPEZ (PELU. DAMA)	155,00 €	38,75
JUANA PANIAGUA FRANCISCO	40,00 €	10,00
MOHAMED AMTI (ILEAPAINDEGIA)	75,00 €	18,75
AMAIA SORAZU (EKILORE)	60,00 €	15,00
MIREIA ESTEVEZ RODRIGUEZ (KOBLOI)	690,00 €	172,50
RICARDO IZQUIERDO SANTAMARIA	635,00 €	158,75
JOSE ANGEL MATIAS FUENTES (FRUT.)	3.090,00 €	772,50
JOSE ANTONIO INSAUSTI (ESTANKOA)	640,00 €	160,00
LEIRE VELASCO SEISDEDOS (LEIRE ESKULA)	335,00 €	83,75
PELLO BIDEGAIN (HARATEGIA)	2.030,00 €	507,50
M ^a CARMEN AGUADO (AGUADO ESTANKOA)	2.070,00 €	517,50
NAGORE COLORADO... (MANAKO)	1.655,00 €	413,75
IDOIA GODOY ATXAGA (FARMAZIA)	1.725,00 €	431,25
ARTANO ETA LORENA SL	1.360,00 €	340,00

GUZTIRA	42.185,00	10.546,25
----------------	------------------	------------------

Ordainketa udal aurrekontuaren 1 471.02.433.01 partidatik egingo da.

Merkatariei 2025eko irekiera eta obregatik.-

Lazkaoko merkataritza eta ostalaritza jardueraren sustapenerako Lazkaoko Udalak 2025erako onartutako dirulaguntzak direla eta (jardueren irekiera eta modernizazioa) jasotako honako eskaeraren ondorengo dirulaguntzaren ordainketa egitea:

MERKATARIA	GUZTIRA
Lucia A. Lema Tercero (Gozokiak Ecu) (Irekiera 1.500; errotuloa euskaraz 500)	2.000,00
GUZTIRA	2.000,00

Ordainketa 2025eko udal aurrekontuaren 1 471.03.433.01 partidatik egingo da.

XI.- LANDA EREMU ARLOKO DIRULAGUNTZAK.-

Landa Eremuko batzordetik baserritar ekoizleei dirulaguntzak emateko egindako proposamenaren aurrean, Tokiko Gobernu batzarrak, honako erabaki hauek hartu ditu:

- Baserritar ekoizleei bonoengatik.-

Lazkaoko baserritar ekoizleen sustapenerako Lazkaoko Udalak 2025eko maiatzean martxan jarritako erosketa bonuen kanpainaren barnean, parte hartu duten hainbat baserritarrek jasotako bonuak ekarri dituzte Udalera eta ondorioz dagokien baserritarrei lehen ordainketa egitea, ondorengo xehetasunaren arabera:

EKOIZLEA	GUZTIRA	DIRU LAGUNTZA
IKER SUKIA MESAS	595 €	255 €
GUZTIRA	595 €	255 €

Dirulaguntzari dagokion zatiaren ordainketa, aurrekontuaren 1 471.02.433.01 partidatik egingo da.

XII.- GALDERA ETA ERREGUAK.-



LAZKAOKO
UDALA

Ormazabal zinegotziak (EH Bildu) galdetu du ea denda batean errotulua euskaraz jartzen denean, dirulaguntza jaso ahal izateko merkatariek justifikatzen duten ordaindu dutena.

Idazkariak erantzun dio baietz uste duela, baina teknikariarekin argituko duela hau honela den.

XIII.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jo du, arratsaldeko bostak eta hogeirenean eta nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dut.



LAZKAOKO
UDALA